

2016 URTEA

2017ko aurrekontuak



BILERA MOTA: AUZOTAKO BILERA KARRIKA

ZENBATGARREN SAIOA : 3

DATA:	HASIERA ORDUA:	BUKAERA ORDUA:
2016-11-10	7:30	21:00

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Iñaki, Jexux eta Iosune
-------------------	-------------------------

Kopurua: 10

16-30 urte: 2	Emakumeak: 2	Euskaraz: 10
30-50 urte: 1	Gizonezkoak: 8	Elebitan:
50-65 urte: 7		
>65 urte:		

AKTALARIA: Iosune Cousillas

Gai zerrenda:

GAIA/JUSTIFIKAZIOA

ERABAKIA

1	Aurkezpena	Bileraren egitura aurkeztu da. Zinegotzi taldea aurkeztu da.
2	Aurrekontuak 2017	2017ko lehenengo zirriborroa aurkeztu da: diru sarreraren aurreikuspena, gastuen aurreikuspena.
3	2016ko balorazioa	2016ko inbertsioen balorazioa aurkeztu da.
4	2017ko inbertsioak	2016ko bileretan jasotako eskaeren ondoren eta urtean zehar ikusi diren beharren ondoren, 2017rako herri mailan inbertsio egin beharreko handiak aurkeztu dira.
5	Karrikako lanak	<p>eginak dauden lehengo urteko eskaerak azaldu dira. Karrikako sarreraren inguruan aritu da hizketan, aukera ezberdinak agertu dira.</p> <p>Karrikako bidegorriaren inguruan agertu da Europatik etorri behar zuen dirua, azkenean ez dela etorri gurera.</p> <p>Karrikako bidegorriak badu proiektu bat egina, eta orain eskatuko da horren inguruko presupuestoa. Legealdian egingarria aurreikusten da.</p> <p>· Kadarsoren inguruan galdetu da.</p> <p>Jexuxek aipatu du ez direla beteko hasierako asmoak. Une honetan esan dute martxoan geratuko dutela aktibitate guztia, eta ondoren maiatzean hustuko dela.</p>

		<p>Kadarsoren ondoan dagoen errepidearen jarraipena egin dela aipatu da. Suposatzen da diputazioak bere zerrendan izango duela, baina nonbait ez da lehentasuna izango.</p> <ul style="list-style-type: none">· Errotako zubia izorratzen ari dela aipatu da, oso irristakorra dago. Hori saihesteko aukera ezberdinak bota dituzte, sareak, larretsina, tirafondoak..· Xorrola, taxibusa... Aurrera begira, begiratu beharko litzateke aukera hau zabaltzea, berraztertzea. Berriz ere estudio azterketa bat egitea ez litzateke gaizki etorriko. Erantzuna: aipatu da datorren urtean Xorrolaren zerbitzua berritu behar dela, eta ikusiko dela...· Karrikako sarrera konpontzen denean kontuan hartu beharko litzateke norabideak nola egin, ataskoak sortzen direlako, kaleak oso estuak direlako. Bestalde, abiadura da faktore garrantzitsua hori saihesteko.· Frontoiari txapela jarri 2018rako???? Erantzuna: nahiko zaila ikusten da.· Galdetu da ea Udalak jartzen al duen arratoientzat benenoa. Arratoi asko ikusten da Karrikan. Erantzuna: jartzen da eta horretarako mantenuko kontratu bat dago. Hala ere, parte eman daiteke ikustean.· Karrikako errepidearen inguruan dauden erabaki zehatzen inguruan galdetu da. Bere kezka agertu du, haurrak jolasten ari direnean arrisku bizian egoten direla. Seinaleak ez dira errespetatzen. Gero eta haur gehiago daude eta berrikusiko beharko litzateke seguritatea bermatzeko.· Parke bat beharko litzateke karrikan. Zaharra dagoen parkea ezin al da berritu? Karrikan dagoen belardian jarri daitezke San Markosen dauden bezalako haurrentzat jolasa modukoak. Auzotarrak konpromisoa hartu du jolas horien inguruko argazki batzuk ateratzeko, eredia aurkezteko. Plazako parkea aparkalekua ere bada, agian bihurtu beharko litzateke berriz ere parkea??· Beste auzotar baten ustez plazan dagoen parkea kendu beharko litzateke, ez da batere egokia, errepidearen ondoan, kristalak daude... Ez du bere funtzioa betetzen. Tokiz aldatu daitezke, erreka ondoan adibidez.... <p>Jexuk aipatu du lehentasunak markatuz gero, auzoak zerri emango lioke lehentasuna?</p>
--	--	---



		<p>Errepidea erantzun dute.</p> <p>Jexuxek aipatu du auzotarrekin bilduko dela proiektua bideratuagoa dagoenean horren berri emateko.</p> <p>Prest agertu dira bilerak egin behar badira horietan parte hartzeko.</p> <p>Auzotarrek egokiago ikusi dute auzo bilera bat deitzea, ahal bada aurten urtea bukatu baino lehen. Planoak erakusteko eta auzotarrekin komentatzeko. Gero bilera horretatik batzorde bat atera daiteke gaiari jarraipena egiteko</p> <ul style="list-style-type: none"> · Frontoiak foku bat beharko luke, hobeto ikus ahal izateko. Frontoiak txapa behar du. · Azkeneko urtetako karrikako eskaerak izan dira uholdeak eta errepidea. Horiei irtenbidea ematea garrantzizkoa ikusten du. · Sarrerako barandak aspalditik hautsiak daude, eta badirudi nahiko arriskutsu daudela.
6	Balorazioa	Balorazio orriak bete dira.

Hilariak: bileran zehar emandako azalpenak	9
Hizlariak: ondo gidatu dute bilera	8,9
Bileran erabili den metodologia	8,8
Herritarren asistentzia	4,8
Herritarren partehartzea	7,6
Saioa probetxugarria izan al da?	8,5
Egunaren egokitasuna	7,6
Orduaren egokitasuna	8,8
Lekuaren egokitasuna	9,5
Denera batz bestea	8,2

2016 URTEA
2017ko aurrekontuak



Komunikazio bideak	kop	%
Kartela	2	17
Whatsapp	4	33
Irratia eta prentsa	4	33
Sare sozialak	1	8,3
Ahoz-ahoz	0	0
Udal aldizkaria	1	8,3